# Iritzi Generoak

2019-2020



www.fppt.info

***Egunkaria* kazetako *Iritzia* sailean argitaratutako iritzi artikulu bat.**



## hondo-hondotik

Joseba Agirreazkuenaga

(Gaur Egungo Historiako katedraduna)

# Ibarretxeren itun berriaren oinarri historikoak

Duela hilabete, EGUNKARIAN irakurri genuen Sancho El Sabio Fundazioak Gasteizen liberalismoa eta foruzaletasunari buruz (1808-1876), erakusketa berria zabaldu zuela. Erakusketaren harian, liburua ere argitaratu du, hamabi ikerlariren ikuspegiak azalduz eta euskal liberalen asmo politikoak ezagutzeko aukera da, Ibarretxeren proposamenaren oinarri historikoen erakusgarri ere delarik, antolatzaileen helburua hori ez izan arren. Nire ustez, euskal aginte politikoa edo autogobernu politikoa, liberalen ekimenez sortu eta egituratu zen.

XIX. mendean Europan Estatu-nazio deitzen den egituraketa politiko-administratiboaren zabalkunde garaia dugu eta XXI. mendean, egitura hori dugu nagusi mundu osoan. Nazio Batuen Erakundea dugu adibide. XIX. mendea, fuerismo politikoaren garaia dugu ere, eta Hego Euskal Herrian, ohiko *konstituzio foralak* liberalismoaren politikaren argitan moldatu ziren, Espainiar konstituzionalismo politikoaren baitan. *Irurac bat* izeneko helburua, politikoki gauzatzen joan zen, bereziki, 1793 urtez geroztik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Diputazioetako ordezkarien biltzar komunetan, euskal aginte politikoa, bandera, mitologia eta abar sortu zuten. Horregatik, 1860an Jose Posada Herrera ministroa kezkati zegoen eta *Konferentzien* bilkurak debekatu egin zituen Gobernadore Zibilen baimena lortu ezean. Estatu bat beste Estatu baten baitan eratzea, ezinezkoa omen zelako. Ministroaren aginduetara A. Canovas del Castillo zegoen eta honek foruzaletasunaren bidetik sortu zen federalismo politikoa mugatzeko, lege berria bultzatu zuen, 1876ko uztailaren 21ean Espainiako Parlamentuak onartu zuena. Aitzakia ona zuen, karlistek eragin zuten gerra, Foru Diputazioak karlisten aurka gogor ekin arren. Karlisten estrategia militarrek euskal aginte politikoaren arazoa, bigarren edo hirugarren mailakotzat izan ohi dute, 1936an ere argiago ikusi zen bezalaxe.



Juan Jose Ibarretxe, Txilen, proposamena azaltzen.

Canovasek Batzar Nagusiak desegin egin zituen 1877an, eta Diputazioen aginte nagusia zergen esparrura lerrotu zen. Bizkaiko Diputatu Nagusia izan zen Juan Tellituk honako hau idatziz adierazi zuen berehala Bizkaiko buruzagien bilkuran: «El pais aforado, era libre e independiente(...). Es pues ,llegado el caso, de que el pais aforado, solicite legalmente la reparación de los desafueros inferidos, o se le reconozca el incuestionable derecho de formar entre el Pirineo y el Ebro, un Estado independiente, a la manera de una pequeña Suiza que siendo declarado neutral, sirva al mismo tiempo de una verdadera salvaguardia para España, evitando por esta parte una invasión extranjera...». Foruak galdurik, euskara bihurtu zen euskal zibilizazioaren babesleku, F. Arrese-Beitiak adierazi zuen legez.

Geroztik, Eskubide Historikoak, hots, foruzaletasunean oinarrituriko agintearen eskuratzea eskatu zen, eta Diputazio probintzialak *Konferentzietan* elkarrekin bilkurak egiten zituzten, zergen kontuak zirela eta. Harik eta 1917an aldaketa egin arte: Gasteizen bildu ziren hirurak eta Nafarroako ordezkaritza ez ofiziala. Eskubide Historikoak lortzeko, Autonomi Estatutuaren bidea urratzen hasi ziren, itxaron gabe, delako Eskubide historikoen egiaztatze osoa lortu arte. Eta 1917an jadanik lehen autonomi estatutu proiektua(*Proyecto de Estatuto Orgánico de la Autonomía Vasca*) zehatz idatzi zen R. Sota Bizkaiko Diputazioko presidente zela. Proiektuaren aurkariak bildu egin ziren eta ondoren hauteskundeak irabazi. II Errepublikan Eusko Ikaskuntzako beste ekimen komuna izan zen.(*Estatuto General del Estado Vasco*) Eta ondoko lorpen ezagunak ahaztu gabe, 1979an gauzatu eta garatu zen azkenik Estatutua, 1917an hasitako ibilbidearen jarraipena. Interesgarria da konturatzea, 1917an Estatu Espainiarraren esku uzten ziren eskumenak, gaur egunean Europako Batasunarenak direla.

Ibarretxeren proposamena, ildo bereko beste urrats bat da, Espainiako Estatua, federalismoaren legean oinarritzeko, Europako Batasunean, euskal aginte politikoaren bermatzea errazagoa izan dadin. Fuerismoa ere indarrean dago, bereziki ogasunaren esparruan.

Ibarretxeren itun proiektuan, historiaren zantzua bistakoa da. Bere oinarri historikoak funtsa gabekoak mitikoak direla baieztatu ohi da. Proposamenaren edukiaren 2.2 atalean dio: «Jatorrizko subiranotasuna dugu, gure eskubide historikoak berariaz jaso baitira Konstituzioan eta indarrean baitaude eguneratuta». Nire ustez, jatorrizkorik ez dago, garaian garaiko politikagintzan. Jatorrizkoa eta jatortasunaren seinaleak aipatzea, komunitate politiko-zibila eratzerakoan, soberan dauden kategoriak dira. Mezua ilundu besterik ez dute egiten. Iragan hurbilean praktikaturiko eskubideak, neurgarriak dira aldiz, eta aipatu behar dena, autogobernu politikoaren aldeko borondatea ez dela gaurkoa, aspaldikoa baizik. Batzar Nagusietan eta abar aldarrikatua. Baina azken batean, unean uneko biztanleek erabaki behar dute etorkizunaren diseinua.

Jakina da, abertzaletasun sabindarrak oinarri integrista doktrinarioa duela, baina euskal abertzaletasun politikoak baditu ere aurrekari liberalak eta errepublikanoak. Adibidez, aipaturiko euskal diputazioen arteko biltzar komunak 1877an, R. Becerro de Bengoak errepublikanoak, euskal aginte politikoaren adierazle zirela aldarrikatzen zuen eta G. Desdevises du Dezert historialariak idatzi zuen: «L'acte était scellé du grand sceau de l'Irurac-Bat, l'État vascongade, triple et un», hau da, Euskal Estatu hirukoitza eta batua garatzera heldu zirela garai horretan, eta beraien aktak erakusgarri direla.

Autogobernuaren aldeko borondate politikoa, denboraren harian, agerikoa da, aurkariena bezain garbia. Horregatik ulergaitza egiten da, denboraren harian, Eusko Legebiltzarrean gorpuztu den *gehiengo negatiboaren* irmotasuna.

Ibarretxeren proposamena aipaturiko gertakizunen historiaren harian kokatu behar da. 1918an, garaiko autonomi estatutuaren, bateko eta besteko, aurkarien oinordekoak, ageri dira orain ere, kontra. Aukeraren bat edo gehiengo berria aurkitu beharko dugu, autogobernu politiko berritzailearen alde.

# Zorionak, alkateak!

(Aurreko orrialdetik dator)

tian aipatu ditugun gertaera objektibo horiek —bi, laburtzearren—. Errealitatea euren desioetara egokitzen saiatu dira, eta erdipurdiko arrakasta lortu dute. Hori lortzeko, eskura zituzten bitarteko guztiak erabili zituzten: ekonomikoak, akademikoak, komunikatiboak, eta, nola ez, instituzionalak. Horren guztiaren adierazle dira XX. mendeko historia, mende horretako bi diktadurak eta ondorengo zapalketa, 32ko iruzurra eta monarkia eraberritzeko berrespen eredua.

Oso adierazgarria da hemen, beste lurralde batzuetan ez bezala, autonomia estatutua ez bozkatu izana, historian erroak zituelako aitzakiarekin. Eredu politiko iluna ezarri zen, muin-muineraino ustela: FASA-Del Burgotik Bosch Siemens-Otano arte. Eredu hori bat etorri da Espainiako historia ofizialarekin; hots, frankismo garaiko nazional-katolizismoak Gurutzada Loriatsuaren bidez berriz idatzitako historiarekin. Nafarroa birtual bat, bere nortasun politiko-historikoa ukatzen duena eta egungo eredu eskasean kabitzen ez dena errotik atera nahi diotena: lehenik eta behin probintzia eredua; ondoren, autonomia eredua, baina beti eredu espainola.

Pentsamolde horretan oinarriturik soilik uler daitezke Aldundiko kide deitzen direnek eginiko eraso basatiak. Modu horretara soilik egin daitezke honakoak: gure iraganaren lekuko arkeologikoa aparkaleku bihurtzeko ekintza txalotzea, gure hizkuntza zaharraren erabilerari zangarte egiteko *agintzea*, ikasliburuak zentsuratzea eta erreserba naturalak errotik ateratzea. Soilik horrela banatzen dira udal taldeak lehenengo, gero justiziak zer dioen galdetzeko. Soilik horrela uler daiteke amore eman izana Bardeako kontuetan edo hitzarmen ekonomikorako negoziazioetan. Eta soilik horrela ulertzen da frankismo garaiko sinboloak jartzea eraikin ofizial, kale eta plazetan, eta herri honen nortasunaren sinboloari berriz ere jazartzea: ikurrinari. Izan ere, «Espainiako Estatuko beste Euskal Autonomia Erkidegoko» sinbolo ofiziala ere bada. Hala, kontraesanekoak diruditen bi sinboloak osagarriak direla aitortzeari zuzen deritzogu: erdian kateak dituen bandera gorria eta ikurrina txanpon beraren bi aldeak dira, bai historiari eta bai politikari begira; eta biak elkarrekin jartzearen aldekoak gara. Era berean, gure hizkuntza Euskal Herrian eta mundu guztian defendatu nahi dugu. Gora Nafarroa intsumisoa, berriro ere!

Erredakzioan itzulia



# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

4.1. Definizioa

4.2. Ezaugarriak

4.3. Egitura

4.4. Artikulugileak

4.5. Motak



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

- **4.1. Definizioa**

***Bere edukiagatik edo eskaintzen duen ikuspegia dela-eta interesgarri den gai bat oinarri duen testua da iritzi artikulua.***



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

*Albistearekin oso lotura urrutikoa du.

Gertaerak ez dira kontatzen. EPAITU egiten dira, haien gainean ARGUDIATUTA.

*Editorialarekiko ezberdintasunak:

-Testua SINATU egiten da.

-LUZEAGOA da.

-ASKATASUN HANDIAGOA dago.

-Tonua ez da HAIN IRMOA.



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.2. Ezaugarriak

- Maiztasun finkorik ez
  duen iritzi testua da.
- Egunkariak berak gonbidatzen ditu
  artikulugileak.
- Askotarikoak dira gaiak.
- Estiloa: argia, arina eta
  entretenigarria behar luke izan.
- Albisteari estu-estu lotuta
  ez dagoen arren,
  gaurkotasuna mantentzen duten
  gertakariak ditu oinarri.




www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.3. Egitura.

1. Titulazioa: LABURRA.
   Iritzi artikuluaren MUINA behar du izan.

2. Testua:

2.1. Albistearen edo gertakariaren
TESTUINGURUA.

2.2. Albistearen edo gertakariaren
INTERPRETAZIOA.
-Aurrekariak
-Gaiaren alde ezberdinen interpretazioa
-Balizko ondorioak
-Aldeko argudioak plazaratu (kontrakoak ezeztatuz)

2.3. EPAIA: ideia nagusiak bildu(laburbildu, ez errepikatu)
eta epai morala eman.



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.4. Artikulugileak

* Artikulua testurik heterogeneoena da:

  -Egileak arras ezberdinak dira.

  -Gaiak, estiloak eta jarrera ideologikoak askotarikoak.

* Artikulugileak:

  pentsalariak, idazleak, politikariak, unibertsitate irakasleak...


Kukurrukuka

JIRA
Angel Erro

Hondarribia

BIRA
Onintza Enbeita

22 Iritzia

IGANDEKO BERRIA
2019ko irailaren 8a

Brexit: erraietatik

Calzada, I. (2019), Brexit: erraietatik, Berria. Retrieved from https://www.berria.eus/paperekoa/1957/022/002/2019-09-08/brexit-erraietatik.htm DOI: 10.13140/RG.2.2.15258.59849.

Igor Calzada
Oxfordeko unibertsitateko akademikoa

Gibel solasa:

Zergatik uste dugu Euskal Herritik, britaniarrak Europar (sentitu behar) «direla»? Kontinente berberean kokatuak daudelako?

Irudia: Igor Calzada unibertsitate irakaslearen iritzi artikulu bat.

www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua



## 4.4. Artikulugileak

*Sinadura da garrantzitsuena, ez gaia.

-Artikulugilearen izenak eta estiloak kazetaren prestigioa indartzen dute.

*El País: Bernard Henri-Lévy.*
*The Independent: Slavoj Zizek.*

-Nolanahi ere, artikulua ez da sinadura handien aterpe soilik. Kazeta bakoitzak bere kolaboratzaileak ditu:

*El País:*
*Fernando Savater, Mario Vargas Llosa.*

-Normalean, kolaborazioak dira.

Argazkiak: *Slavoj Zizek eta Bernard Henri-Lévy.*



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.5. Motak

*Iritzi artikulu motak:

1. Saiakera.
2. Tribuna irekia.
3. Artikulu kostunbrista.
4. Atzera begirako artikulua.




www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.5.1. Saiakera

Gai, egoera edo pertsonaia jakin bati buruzko idazki laburra da. Eta, bertan, modu oso askean egiten da gogoeta.

*Gonzalo Martín Vivaldik dioen legez,

edozerri buruz eta edozein tonuan idatz daiteke.

Hots, gai berberak –guda, gazteak, kutsadura– filosofikoki, zientifikoki edo ironikoki landu daitezke.

*Berez, labur eta kasik eskematikoki aurkeztutako dibulgaziozko lana da. Testuak egilearen ondorioak biltzen ditu: ideiak, aurkikuntzak, hipotesiak.



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.5.2. Tribuna irekia

*Kazetak etxekoak ez direnen iritziei leku egiten die. Sarri, bere ildo ideologikotik at dauden iritziak dira. Hala, politika munduko zein gizarte esparruko ordezkari ezberdinei iritzia plazaratzeko aukera eskaintzen die.

*Normalean, puri-purian dauden gaurkotasun handiko gaiak dira eztabaidagai.

*Polemika moduko bat pizten da kolaboratzaileen artean. Kazetak, ordea, ez du borroka horretan parte hartzen. Sinatzaile ezberdinei espazio bat ematera mugatzen da.



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua



## 4.5.3. Artikulu kostunbrista

*Herrialde edo sasoi baten ohiturak erretratatzen ditu.

Giza bizitzari buruzko ikuspegi kritikoa eman ohi du, umorez zipriztindurik gehienetan.

*XIX. mendean nobelan, antzerkian eta kazetaritzan jazotako literatur mugimenduan du bere jatorria.

Espainian:

Mariano José de Larra (ohitura sozialen kritika).

Francisco Umbral idazlea ere korronte horretan koka daiteke.



www.fppt.info

# 4. GAIA:
# Iritzi artikulua

## 4.5.4. Atzera begirako artikulua

*Dibulgazio historikoa xede duen artikulu bat da, funtsean. Erreportajea eta ikerketa uztartzetik erdietsitako azpigenero berezia.

*Iruzkin kutsu handia du, ordea. Eta, normalean, gaiari gaurkotasuna eskaintzen dion urteurren edo oroipen baten ondorioz argitaratzen da.



www.fppt.info